



AITOR HERRAN



AITOR HERRAN

Orio, herria eta errioa




ORIOKO TURISMO BULEGOA

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA:
IÑAKI ITURAIN

Orioko errioa (Gipuzkoa)



IÑAKI ITURAIN

Lehen eta orain, izenean eta izanean, bata besteari hainbeste zor dionez ezin konpreni genezake herria erriorik gabe; ezta errioa herriarik gabe ere. Biak ezagutzeko modua da honoko proposamena:

Triatloia Oriak Oriorekin bat egiten dueneko eremua ezagutzeko, errioa eta herriaren arteko maitasun istorio bat airetik, lehorretik eta uretatik ikusteko. Parapentean, bizikletan eta arraunean.

Kukuarri mendiko tontorra da herriko punturik altuena. Talaia ederra dago hango gurutzetik, Oteizaren Ama Birjinaren ondo-ondotik. Eguraldi garbiarekin eta prismatikoak hartuta, iparraldean itsaso zabala ageri da, ekialderantz Landetako hondartzak sumatzen dira mugan, eta mendebalderantz Matxixakoko lurmuturra. Primerako tokia baleak zelatatu eta abisua herritarrei emateko. Gaur, hurre, itsasoari bizkar eman eta Ernio aldeko mendiak markoa jartzen dioten koadro ederrari begiratu diogu. Orio herria eta Oria errioa azalduko zaizkigu oinen pean. Ausartenentzat aukera ederra dago biak, herria eta errioa, txorien ikuspegi berberaz gozatzeko, hegalaria, parapente batetik.

Ausardia izanez gero, ez dago aitzakiarik, gaur egun bada enpresa bat parapentean jaitsi nahi duenari laguntzeko, Ostargi Parapente Eskola (943 27 81 96 / 629 43 68 66), nahi bada bakarrik, nahi bada aditu batek lagunduta, biko batean.

Ederra da ikuspegia airetik. Ai txori banintz! Han goitik garbi ikusten da Orio eta Oriaren arteko ezkontza. Zer litzateke Orio Oria gabe? Askok eman dio, eta ematen, erriok herriari, tarteka heriozko tributua ere pasa ohi dio baina. Gogoia ematen du ibaiaren erraiek barnerratzeko. Baina erriora iristeko, bestalde, abiatuko gara, itsaso aldera eta, haizearen kulunkan, hondartza ondora jaitsi. Han bada nahikoa toki lur hartzeko. Ordu laurden, edo erdi, zoragarria pasako duzu.

Airetik lurrera eta lurretik uretara

Hondartzan lur hartuta, parapentea utzi eta bizikleta hartuko dugu, gure triatloia berraren bigarren etaparako. Aspaldi honetan, lehorretik erri ondora ibiltzeko aukera asko handitu da. Duela urte gutxi arte ez bezala, kilometro asko egin daitezke oinez edo bizikletaz erri ertzean, bere bi aldeetan: hondartzatik abiatu eta Ortzakaraino eta, bestaldean, barra muturretik Motondoraino. Buelta osoa eginda ia hamar kilometroko ibil-

bidea dago, ur ertzean betiere. Ibilbidea osatu badugu, pixka bat nekatzeaz gain, honezkero errikoan sartzeko gogoia ere sartu zaigu.

Gogo hori asetzeko, uretarako ontzia behar da. Gaur egun ez dago horrelako eskaintzarik, gehienez ere piraguan ibiltzeko aukera ematen du orain dela urte gutxi sortutako Oriko turismo bulegoak (943 83 09 04). Beraz, balizko egoera bat irudikatuko dugu, laster batean gauzatuko delakoa: premia sumatuta, enpresa txiki bat sortu da, jendeari errioa erakusteko. Badira ontzi batzuk eta haiek eramateaz arrantza zaharrak arduratzen dira. Oriako zeharkaldiko bazterrak erakusteko eta hango bitxikeriak kontatzeko, Urdaibain Edorta Jimenez bezala, Orion bertako hitzun on eta erri zale bat joango da, bazter bakoi-

Ez dira toki txarrak erriko ibaiadarrak piraguan sartzeko, Amazonas oihanean zaudela imajinatzeko modukoak

tzari istorio bat egokituz, erriko joan-etorria natura eta kulturaren batuketa samurra bilakaraziz.

Errioa herritik ikusi ohi dugu, ez gaude ohituta erriotik herria ikusten, eta zinez ederra da.

Hondartza ondoan egin berri duten kirol-portutik abiatuta errikoan gora egingo dugu. Portutik atera orduko, gidariak, erriok itsasoarekin bat egiten duen barra erakutsiz, bertso bat kantatuko digu, bertako bertsolari batek barra horretan itotako arrantza-leak gogoan zituela egin:

Oriotarren kezka
minena da barra,
itsasorako duten
ur-bide bakarra,
ogi bila joateko
igaro beharra,
heriotza dutela
zelatari zaharra.

Falange Espainolaren kanpaleku zaharra

Kirol portuaren aurrez aurre, Aia aldean dagoen erri-hondartza ikusten dugula, gidariak hango aldetik berri emango digu: han 40ko hamarkadan Falange Españolak Txurruka izeneko kanpalekua sortu zuen, hemengo haurrei haien balioak erakusteko; gaur egun, aldiz, naturaz gozatzera eta euskararen erabileran aurreratzera joaten dira bertara haurrak.

Ontziak, itsaso ondoko ingurunea utzita, herri aldera egingo du. Justu iritsi aurretik, eskuinera Oriaren azken ibaiadarrak utziko dugu, Altxerri izeneko. Neolitikoko pintura ederrak gordetzen dituen kobazuloak eman zion izena errekarri, bertatik bertara dago eta. Aurrera eginda, herriaren erdi-erditik pasako gara, arrantza-garaia ez denean han atsedenean dauden arrantza-ontzien ondo-ondotik. Antxoaz gainezka lehorreratzen ziren garaien oroitza-penekin amesten utziko ditugu. Gerra garaian, 36ko irailean dinamitatuta bota zuten zubiaren azpitik pasa eta segituan, eskuinera berriro ere, erriko azken bigarren ibaiadarrak utziko dugu, Portuko erreka izeneko. Garai batean Aia aldetik jaitzen zuten egurra ontziratzeko baliatzen zuten portu-baserriari izen hartuta.

Ez dira batere toki txarrak bi ibaiadar horiek bertara piraguan sartzeko, naturaz bertatik bertara disfrutatzeko egoki-egokiak, Amazonas inguruan zaudela ere imajinatzeko modukoak. Baina ontzi handi samarrean goazenez, errekatxo horiek alde batera utzita goraka segi eta Oriko Arraun Elkartearen ondotik pasako gara, hau ere eskuinean. Hor gidariak herri honetan tradizio handia duen kirolaz hitz egingo digu, arraunaz, duela mende bete arte balearen arrantzara joateko egiten zen arraunketan sortzen zen lehiak ekarri zigun kirolaz, Oriko herriari, izenean eta izanean, zeharo eragin diona.



Hara hor gure proposamena hiru argazkitan: Orioko triatloia; errioren ertzean bizikletaz; errioren piraguaz; eta errioren gainetik parapentez.

Arraunlariekin batera

Errioko zeharkaldi hau marea betean egin beharrekoa denez, ia ezinezkoa da arrauneko entrenamenduan dabil-tzan ontziekin ez gurutzatzea. Han ibiliko dira, tostako ontzi tradizionalen batzuk, aulki mugikorrek on-tzi olinpikoetan besteak; uda garaiko estropadak gogoan, gogor entrena-tzen, neska eta mutil. Justu aurrez

aurre dago zarauztarren kluba ere, oriotarrena ez bezala, Orio herria dagoen aldean.

Aurrera egin eta herriko zubitik kilo-metro batera-edo, ezkerrean Ortzaika auzoa ageri zaigu, arraunlari handien sehaska, Jose Luis Kortarena besteak beste. Ortzaikaren aurrez aurre, gure-tzat eskuinean, padura bat daukagu, Motondo, azken urteotan ekologia

zaleen eta han fabrikak jarri zaleen edo arraun pista egin zaleen arteko borroka toki bihurtua. Orain, asteburuetan, aerodromo egiten dute, baina jostailuz-ko hegazkin telegidatuena.

Horiek atzean utzi eta errioko inguru horretan egiten dituen mean-droak pasatuta, Aginagako lurretara eramango gaitu errioko, erri izateari utzi eta ibai izaten hasten den eremu-ra, ur gaziak gatz galduta ur geza dakarren mendiko emaria nagusitzen den ingurura. Haraino iristen dira neguan, oraindik gaur egun ere, Aginagari ospea eman dioten arraintxoak, angulak. Han zeu-den kokatuta XVII. eta XVIII. mendeetan garrantzi handia izatera iritsi ziren ontziola han-dienetako batzuk. Ameriketara joan ohi ziren itsasontzi asko bertatik atera ziren.

Apellanizen oleoa



Ziaboga hartu eta itsasorantz

Aginagaraino iritsita, goraka zihoan marea ere, bere betetasu-na igarota, beheraka hasia izan-



AITOR HERRAN

Azken urteotako aldaketak ondoen zerutik ikusi daitezke.

go da, eta guri ziaboga emateko ordua iritsia. Itsasorakoan, gidariak hurrengoan buelta arraunean egin dezaten gonbidatuko ditu bidaiaariak. Eta erriaren mugetaraino ailegatu direnez, handik aurrerako Oria ibaiaren gaineko datu batzuk emango ditu: Gipuzkoako luzeena dela, Aizkorrin jaiotzen dela, Zegamako lurretan, Tolosa inguruko paper-fabrikek ibaira isurtzen zituzten gai pozoitsuek Europako ibai kutsatuena izateko “ohorea” ekarri ziotela Oriari, ibaia Ebrorekin lotu eta

Kantauritik Mediterraneoraino iritsiko zen ur-bidea egiteko proiektu batzuk egin zirela... Ondoren, leman doan arrantzale zaharra, gidariari atsedena pixka bat emateko, kantari hasiko zaigu, balearen bertsoak bukaerarako utzita. Benito Lertxundik sortu duen kanturik ederrenetako baten hitzak errezitatzen hasiko da, Oria ibaiari egin zion kantuarenak:

“Gure bazterrak bustitzen dituzun ibaia, aspaldian ustelkeriz zikindurik zatozena. Oraindik ere ikusten

dut bizi nahia, borondatea eta maitasuna, igeri dabilzala zure handitasunean, pozoiketa ez da nahikoa zure hats bizikorra itozteko, eta oraindik gazia den zure gatza eskertzen dizute arraitxoek. Nik zure barnetaraino murgildu nahi dut gaur, zure maitasunean igeri egin. Zure bustitasunean abiatuko naiz heriotza menperatzeko duzun sekretuaren bila, edertasun guztien leku izan nahi duzunez gero hala izan zaitezen, bizitzaren kantu zaren ibaia”. ■